

10.LAN HARREMANAK ETA SINDIKALGINTZA.

10.1.Lan harremanen aktore sozialak.

Iraultza industrialarekin batera lan harreman mota berri bat eratzen da. Langile multzo handi batek lana egingo du esparru txiki batean, lantegian alegia, soldata eskas baten truke. Lehenengo unetik, hor sortuko diren harremanak gatazkatsuak izango dira. Gatazka hori, askotan, istilu bortitzez josita agertuko zaigu. Arazo horri nolabaiteko irtenbide bat ematearren sortu zen lan zuzenbidea eta, orokorrean, lan harremanen antolaketa instituzionala.

Gaur egun gizarte industrialetan eratzen diren lan harremanetan hiru aktore nagusi egoten dira:

- Langileak eta bere erakunde sindikalak.
- Enpresariak eta berauen elkarteak.
- Estatuak, bitartekari eta kontrol lana aurrera eramateko sortu dituen administrazio organoak.

10.2.Langileriaren mugimenduak: sindikatuak.

Sindikatuak, definizio simple baten, langileok sortutako egiturak dira, enpresarien boterea mugatzeko asmoarekin. Funtsean, langileen botere kolektiboaren tresna bat da lan kontratuaren inguruan ematen diren baldintzak negoziatzeko eta kontrolatzeko. Botere kolektibo hori bi era ezberdinetan ager daiteke: erakunde finko moduan, hori izango da sindikatu tradizional bat; edo, mugimendu sozial moduan, egitura finkorik ez duena, baina langileen defentsa mekanismo bezala, une zehatz batzuetan funtzionatzen duena.

Bilakaera historikoa.

Hasierako kapitalismo basatiaren aurrean, lanbide jakin batzuetako langile kualifikatuek “ofiziozko sindikatuak” eratu zuten. Euren kualifikazioei esker negoziatzeko indarra zuten, eta horrela sindikalgintzaren aitzindariak bihurtu ziren. Bere helburuak oinarrizko lan eskubideen lorpena izango da, hau da, elkartzeko eskubidea, grebarena, manifestazioarena, adierazpena, e.a.. Une horretako instituzionalizazio maila oso txikia da, baina abian da dagoeneko.

Berehala langileen mugimendua iraultzailea bihurtu da, hau da, bere helburua kapitalismoa suntsitzea izango da. Korrante ezberdinak sortuko dira, hala nola: anarkosindikalismoa, marxismoa, mutualismoa, korrante utopikoak, e.a.

Munduko Lehen Gerrarekin, eta Errusiako iraultzaren ondoren, beste era batera ikusiko dira lan harremanak herrialde industrial garatuenetan. Zenbait tokitan, langile mugimenduaren protagonismoa arlo politikoan, alderdi sozialista eta sozialdemokraten bidez, esanguratsua da. Hortik hasten da lan harremanen benetako instituzionalizazioa.

Ongizatezko Estatuak eratzen den herrialdeetan gerraosteko giza kontratua izango da bere oinarri nagusia. Estatuak eratuko ditu lan harremanen sistema berriak: lan zuzenbidea, negoziazio kolektiborako mekanismoak, erregulazio prozedura egonkorrak. Gatazka sozial instituzionalizatuak ez du kolokan jarriko antolaketa politiko orokorra; are gehiago, lan harremanen esparrua autonomoa izango da sistema politikoarekiko.

10.3.- Sindikalgintzaren ereduak.

Sindikalgintza aztertzeko, hainbat irizpide har daitezke:

Bere ekintza sindikalaren arabera:

a) Klase sindikatuak: Bere oinarria langileen eta enpresarien arteko banaketa eta, honek dakarren klase kontzientzia dira. Ekintza sindikala jardura politiko eta sozialarekin uztartzen da, hau da, mobilizazio orokorrekiko, legedian eta lan harremanen egitura eragina izateko. Askotan, nolabaiteko lotura edo hurbiltasuna daukate ezkerreko alderdi politikoekin. Eredu hau Europako hegoaldean nahiko hedatuta dago.

b) Sindikatu ekonomikoak: Bere helburuak mugatuagoak dira. Bere ekintza esparrua lantegiak edo lanbide jakin batzuen interes profesionalak dira. Negoziazio kolektiboetara mugatzen dira. AEBetako eta Japongo ereduak honelakoa da hein handi batean.

c) Kontzertazio sindikatuak: Negoziazio sare zabal batean hartzen dute parte. Helburuak ez dira mugatzen lan esparrura, baizik eta zerbitzu sozial orokorretara ere hedatzen da. Sistema politiko eta sozioekonomiko egonkor eta finkoetan ematen da, non ongizatezko gizarte sendoak dauden. Honelakoa da herrialde nordikoetan eta erdialdeko Europako eredu sindikala.

Ordezkaritza eta afiliazioaren arabera:

a) Eredu anitza edo bakarra: Sindikatu bakarra egon daiteke, derrigorrezko afiliazioa izaten duena (kontzertazio sindikatuak) edo aniztasun sindikala, ideologiaren arabera hainbat sindikatuak sortzen duena (gure ereduak).

b) Ordezkaritza afiliatuen zenbakietan edo hauteskunde sindikaletan lortutako delegatuetan oinarritzen dena.

Gure lan harremanen ereduak sindikatuen ordezkaritza bikoitia da: Alde batetik, enpresa mailan, enpresa komiteak izaten dira langileen ordezkaritzaren organoak, baina, aldi berean, enpresa handietan atal sindikalak ere egoten dira.

Esparru zabalagoetan, sektoreetan edo lurraldeetan, sindikatu nagusiak, ordezkaritzaren arabera, izaten dira lan harremanen protagonistak.

10.4.- Enpresariak eta enpresarien elkarteak.

Kasu gehienetan, enpresarien elkarteak erantzun moduan sortu dira, sindikatuen indarraren aurrean. Estatuaren antolaketa liberala dagoen bitartean, Estatuaren administrazioak ziurtatuko ditu enpresarien interesak. Estatu liberalaren azken helburua, ahalik eta merkatuaren erregulaziorik gutxien egotea da. Horrek esan nahi du lan harremanen erabateko erregulazio eza ematen dela. Ekintza sindikala debekaturik dago lan merkatuaren askatasunaren izenean.

Ongizatezko Estatuan lan harremanen asimetria onartzen da, gatazka sozialaren intutuzionalizazioarekin. Estatuak parte hartze zuzena izango du merkatuan, enpresarien boterea mugatuz.

Horren aurrean sortzen dira enpresarien elkarteak eta, hain agerikoak ez baina, oso inportanteak diren *lobbyak*.

Enpresarien elkarteak bi motatakoak izan daitezke: enplegatzaile moduan edo jarduera ekonomiko jakin bateko enpresari bezala.

Enplegatzaile den neurrian, bere enplegatuekin izango dituen lan harremanak nola arautu behar diren eta , negoziazio kolektiboaren bidez nolako akordioak lortuko diren, era indibidualean edo, egokiago, era bateratuan lor dezake enpresariak.

Lobbyak presio taldeak izaten dira, sektore edo jarduera ekonomiko jakin baten aldeko arau baldintza egokienak lortu nahi dituenak.

10.5.- Estatuaren funtzioak lan harremanetan.

Lan harremanen asimetriak onartzen direnean, Estatuak arautu beharko ditu, ahulenak babesteko . Zuzenbidezko Estatu Sozialak deritzaten erregimen politikoetan, hori da oinarritzko ardatz bat.

Estatuari dagokio, baita, bitartekari lana egitea. Nahiz eta, lan harremanen esparrua zerbait autonomoa izan, hau da, arau batzuen barruan enpresari eta sindikatuen artean konpondu beharreko arazoa, kasu batzuetan Estatuaren administrazioari dagokio bitartekari lana egitea, bai jarrera hurrenak hurbiltzeko, edota desadostasunak argitzeko.